

Arkide



#OkondonDenokBatera

Okondoko
herriaren aldikaria
#12
2020ko MAIATZA / MAYO

Vía verde a los presupuestos

En el pleno ordinario del 30 de abril, el Ayuntamiento de Okondo ha aprobado los presupuestos municipales para el año 2020, que ascienden a más de 3 millones de euros. En palabras del equipo de gobierno, se ha hecho hincapié en la priorización inteligente del gasto y en el desarrollo de los proyectos claves del municipio para la redacción de las cuentas. Entre ellos, destacan las obras de la red separativa de aguas, cuyo presupuesto es de 1.428.670 euros, la rehabilitación de la ermita del cementerio y la reparación del camino de

Ugalde, con una inversión de 256.446 euros. Persiguiendo el objetivo de responder con eficacia a las necesidades de las y los vecinos, se destinará una partida de 7.600 euros para paliar los gastos que se están generando durante el estado de alarma. Por otro lado, la cultura y el ocio contarán este año con un presupuesto de 35.000 euros. Cabe destacar, además, que el Ayuntamiento apuesta también por el sector primario, y es por ello que invertirá una cuantía de 60.000 euros en labores agrícolas y ganaderas.

*Apirilaren 30ean
izandako osoko bilkuran
2020ko aurrekontuak
onartu ditu Okondoko
Udalak, 3.000.000
euro baino gehiagoko
partidarekin*

#OkondonDenokBatera

Herriko kaleak eta eraikin publikoak desinfektatzeko lanez gain, ekimen berezia antolatu du udalak okondoar guztiek animo mezua jaso dezaten. #OkondonDenokBatera izeneko bideo bateratua argitaratu da, herritarrek bidalitako bideo eta argazkiekin. Udalaren YouTube kanalean zein Facebook orrialdean ikus daiteke. Omenaldia egin nahi zaie udalerriko pertsona guztiei, bereziki, etxeko txikienei -benetako superheroiei-,

herria altxatzeko lan egin duten aititei eta amamei, baita koronabirusak kaltetu dituen familia guztiei ere. Horrekin batera, txapak banatu ziren herrian zehar, Justino Artoren eskutik. Okondoko gobernu taldeak lanean jarraitzen du ildo soziosanitarioa indartzeko helburuarekin, batik bat, herriko pertsona ahulenei laguntzeko eta arreta eskaintzeko. Uneoro pertsonak ardatz hartuta, hainbat neurri hartuko dituzte.

*Con vídeos y fotografías
enviadas por las y los
vecinos y bajo el lema
#OkondonDenokBatera,
el Ayuntamiento ha
publicado un mensaje
de ánimo audiovisual en
Facebook y YouTube*

San Prudentzio jaia balkoietatik ospatu da aurten Okondon



Argazkia: Iñaki García Uribe

San Prudentzio ospakizuna gutxienez 1483. urtetik gauzatzen da Araban; alabaina, 1644an hartu zuten San Prudentzio Arabako patroitzat, eta orduan hasi zen ospatzen jaieguna apirilaren 28an. Aurten, tamalez, koronabirusaren hedapenak eragin duen ezohiko alarma egoera dela eta, 2020ko San Prudentzio jaietarako egitaraua bertan behera geratu da Araba osoan. Herrian antolatutako ekintzen artean, zehazki, Okondoko Eskolako danborrada nahiz baselizan urtero egin ohi den meza eta luntxa eskaintzea aurreikusi zituen udalak. Hala eta guztiz ere, konfinamendua gorabehera, Club Montaña Ganekogorta elkarteak danborrada

sinbolikoa antolatu du balkoietan, udalarekin batera, okondoarrek etxeetatik jaia ospatu ahalizateko. Hala izanik, San Prudentzio jaia balkoietatik egin da aurten Okondon. Danborradak apirilaren 27an, 20:05ean, eta 28an, 13:00etan eta 20:05ean, egin dira. Deialdi horiek udalerriko haur eta gazteei zuzenduta zeuden bereziki, baina herritar guztiak animatu dituzte danborradan parte hartzera. Etxean danborrik ez duten okondoarrek instrumentu horren funtzioa egin dezaketen objektuak baliatu dituzte. Danborradetan herritarrek filmatutako bideo eta argazkiekin, bideo bateratua zabalduko da udal webgunean eta Facebook orrialdean.

Dada la situación de confinamiento actual, las vecinas y vecinos de Okondo han celebrado San Prudencio desde los balcones, a través de la iniciativa organizada por Club Montaña Ganekogorta y el Ayuntamiento

El Ayuntamiento solicita la reapertura del centro de salud



Debido a la pandemia de Covid-19, Osakidetza ha procedido al cierre temporal del centro de salud de Okondo para destinar a su personal sanitario al ambulatorio de Llodio y poder así luchar con mayor eficacia contra el virus. No obstante, al tener que acudir al ambulatorio de Ludio, las y los vecinos del municipio están más expuestos al virus; en especial, las personas más vulnerables -mayores, personas con enfermedades oncológicas o diversas patologías, entre otras-. Por ese motivo, desde el Ayuntamiento de Okondo se ha solicitado que se reconsidere la situación y se proceda a abrir el centro de salud del municipio al menos dos días a la semana para atender a la población de riesgo y realizar consultas prioritarias.

Osasun zentroa astean bitan irekitzea eskatu dio udalak Osakidetzari, lehenasunezko kontsultak eskaini ahal izateko



di
sei
nua

ko
mu
nika
zioa

pu
bli
zita
tea

itzul
pen
gin
tza

ba
na
ke
ta

Osasun-krisialdian Euskadin eskaintzen diren gizarte-laguntzak



Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak plataforma bat ireki du Covid-19 pandemiaren harira, eskura dauden gizarte-laguntzak bilatzeko: #covid19laguntzak (www.covid19laguntzak.eus). Webgune horretan, osasun-larrialdi egoerak eragin duen inpaktu negatiboari aurre egiteko egun lor daitezkeen prestazio guztiei buruzko informazioa bildu dute gizarte-zerbitzuetako profesionalak eta hirugarren sektoreko erakundeek. Bilatzailearen bidez, lurraldearen, neurri motaren eta esparruen arabera hainbat laguntza kontsultatu ahal dira. Aipagarria da informazioa etengabe eguneratzen dutela, egungo alarma egoeran gauzatzen ari diren arau-aldaketei eta -garapenei erantzuteko.

Covid19laguntzak.eus es un portal de consulta sobre las ayudas sociales habilitadas en Euskadi durante la crisis sanitaria actual

Se paraliza el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica



Dadas las dificultades actuales de la ciudadanía para hacer frente a ciertos trámites y obligaciones tributarias, el Ayuntamiento de Okondo ha suspendido el expediente mediante el cual se tramita el cobro del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica. En consecuencia, no se efectuará el cargo previsto para las personas contribuyentes con el pago domiciliado en fecha del 4 de mayo de 2020. Asimismo, se suspende el expediente a través del cual se realiza el cobro de la tasa de agua, basuras y alcantarillado del primer trimestre del año 2020. Los procedimientos tributarios interrumpidos con motivo de la crisis sanitaria se reanudarán una vez sea posible, es decir, cuando lo permitan las normas vigentes y lo aconsejen las autoridades pertinentes.

Zaborra, ura eta estolderia tasen zein trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainketa eten egin dira

eLiburutegia, una plataforma de préstamo de libros digitales



eLiburutegia

La Biblioteca Digital de Euskadi cuenta con miles de libros online para aquellas personas socias de alguna de las bibliotecas que componen la red vasca. Para cualquier préstamo, es necesario entrar en la web del Gobierno Vasco, www.eliburutegia.euskadi.eus. Una vez allí, se podrán realizar las búsquedas. A la hora de solicitar cualquier pedido, hay que introducir previamente el usuario y contraseña que se puede consultar en la hoja amarilla que se entrega al darse de alta en la biblioteca. Mientras dure el estado de alarma, se podrán descargar hasta 6 libros por persona. El plazo de préstamo de cada libro será de 21 días sin renovación. Para más información, es posible contactar con la biblioteca en horario de tarde llamando al número 945 89 83 39.

Eusko Jaurlaritzaren eskutik, eLiburutegia plataforman liburuak online irakurtzeko aukera eskaintzen zaie liburutegiko bazkide guztiei

¿Tu negocio no aparece en ARKIDE?

Si no apareces, no existes.

Eskaini zure zerbitzuak Okondoko etxe guztietan

Ofrece tus servicios en todas las casas de Okondo

Informa zaitez
Infórmate
sin compromiso

publicitatea@komunika.eus
688 625 394

 **YANDIOLA**
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

Karmen Kalea 13, beheka LAUDIO (Araba) 946 72 31 00
Mediku zen roa RPS: 314/18

Zorionak haurrentzako marrazki lehiaketaren irabazleei!

“Zer egiten dugu etxean ondo pasatzeko?” izeneko umeentzako pintura lehiaketan, konfinamendu egoera honetan egin dituzten ekintzak adierazi dituzte marrazkien bidez Okondoko haurrek. Alarma egoera hasi zenetik, futbolera edota mahai-tenisera jolastu, txakurrarekin lorategian paseatu, telebista ikusi eta marraztu dute, besteak beste. Txapelketan,

herriko 2 eta 12 urte bitarteko hainbat umek parte hartu dute eta adinaren arabera hiru kategoriatan lehiatu dira: 2-5 urte, 6-8 urte eta 9-12 urte. Kategoría bakoitzeko bi sari daude, hau da, sei obra irabazle aukeratu ditu epai-mahaiak. Lehenengo saria eskolako materialean gastatzeko 50 euroko txartela da; bigarrena, aldiz, 40 eurokoa.

En el concurso de dibujo infantil, niñas y niños de Okondo han descrito las actividades que han realizado para divertirse durante el confinamiento



1. saria, 2-5 urte



1. saria, 6-8 urte



1. saria, 9-12 urte



2. saria, 2-5 urte



2. saria, 6-8 urte



2. saria, 9-12 urte

¿Tu negocio no aparece en ARKIDE?

Si no apareces, no existes.

Eskaini zure zerbitzuak Okondoko etxe guztietan

Ofrece tus servicios en todas las casas de Okondo



Informazioa eskatu
Infórmate sin compromiso:

publicitatea@komunika.eus
688 625 394